

**LEHEN MAILA**

JARDUNALDIKO EMAITZAK	TALDEA	PT	J	I	B	G	KANPOAN	I	B	G	GUZTIRA	I	B	G	GOLAK	A	K
Vila-real 1-0 Valladolid	▲ 1. Reala	44+12	21	6	4	0	6	4	1	12	8	1	36	24			
Real Madril 4-1 Betis	▲ 2. Real Madril	42+24	21	7	3	0	4	6	1	11	9	1	46	22			
Rayo 2-1 Malaga	▲ 3. Valentzia	39+17	21	7	2	2	4	4	2	11	6	4	34	17			
Recreativo 1-1 Valentzia	▲ 4. Deportivo	36+5	21	5	3	2	5	3	3	10	6	5	30	25			
Mallorca 0-2 Celta	▲ 5. Celta	33+5	21	5	3	3	5	0	5	10	3	8	24	19			
Reala 0-0 Espanyol	■ 6. Betis	33+4	21	6	2	3	3	4	3	9	6	6	32	28			
Deportivo 1-1 Osasuna	7. At. Madril	29+6	21	5	4	2	2	4	4	7	8	6	33	27			
Racing 2-0 Alaves	8. Vila-real	28-1	21	5	2	3	2	5	4	7	7	7	22	23			
Sevilla 1-1 At. Madril	9. Malaga	27+2	21	5	4	2	1	5	4	6	9	6	28	26			
Bartzelona 2-2 Athletic	10. Valladolid	27-3	21	5	2	3	3	1	7	8	3	10	21	24			
<b>HURRENGO JARDUNALDIA</b>																	
Espanyol - Bartzelona	11. Mallorca	27-11	21	3	2	5	5	1	5	8	3	10	24	35			
Valentzia - Malaga	12. Sevilla	26+1	21	3	5	2	3	3	5	6	8	7	17	16			
Valladolid - Deportivo	13. Athletic	26-5	21	5	2	4	2	3	5	7	5	9	32	37			
Celta - Recreativo	14. Alaves	25-7	21	4	4	2	2	3	6	6	7	8	26	33			
Racing - Rayo	15. Bartzelona	24-1	21	4	4	2	2	2	7	6	6	9	29	30			
Athletic - Sevilla	16. Osasuna	24-4	21	5	1	5	1	5	4	6	6	9	23	27			
Betis - Reala	17. Racing	23-5	21	4	2	4	3	0	8	7	3	11	24	29			
Alaves - Vila-real	▼ 18. Espanyol	22-7	21	5	2	4	1	2	7	6	4	11	24	31			
Osasuna - Real Madril	▼ 19. Rayo	22-8	21	3	3	5	3	1	6	6	4	11	22	30			
Atletico - Mallorca	▼ 20. Recreativo	15-24	21	2	4	5	1	2	7	3	6	12	17	41			

▲ Txapeldunen Ligara ■ UEFARA  
▼ Bigarren A Mailara

**BIGARREN MAILA**

JARDUNALDIKO EMAITZAK	TALDEA	PT	J	I	B	G	KANPOAN	I	B	G	GUZTIRA	I	B	G	GOLAK	A	K
Xerez 2-1 Eix	▲ 1. Murtzia	39+20	22	8	2	2	3	4	3	11	6	5	29	9			
Sporting 1-2 Numancia	▲ 2. Levante	39+11	22	7	4	1	3	5	2	10	9	3	32	21			
Leganes 1-3 Badajoz	▲ 3. Zaragoza	38+6	22	6	4	0	4	4	4	10	8	4	24	18			
Albacete 1-0 Terrassa	4. Albacete	36+10	22	5	6	1	3	6	1	8	12	2	27	17			
Ejido 0-0 Eibar	5. Xerez	33+2	22	4	5	3	5	1	4	9	6	7	25	23			
Salamanca 2-1 Almeria	6. Ejido	31+2	22	4	5	3	3	5	2	7	10	5	20	18			
Kordoba 2-1 Zaragoza	7. Elx	30+8	22	4	3	4	3	6	2	7	9	6	27	19			
Levante 1-0 Getafe	8. Sporting	30+2	22	5	6	1	2	3	5	7	9	6	21	19			
Murtzia 0-1 Oviedo	9. Las Palmas	30+1	22	6	3	2	1	6	4	7	9	6	27	26			
Tenerife 5-1 Compostela	10. Salamanca	29+1	22	3	5	4	4	3	3	7	8	7	14	13			
Ferrol 1-2 Las Palmas	11. Tenerife	28+7	22	4	7	0	1	6	4	5	13	4	27	20			
<b>HURRENGO JARDUNALDIA</b>																	
Las Palmas - Xerez	12. Terrassa	28	22	3	6	1	2	7	3	5	13	4	21	21			
Elx - Sporting	13. Leganes	28-1	22	3	5	4	2	6	2	5	11	6	23	24			
Numancia - Leganes	14. Numancia	26-4	22	4	3	3	2	5	5	6	8	8	22	26			
Badajoz - Albacete	15. Almeria	26-10	22	4	4	2	2	4	6	6	8	8	24	34			
Terrassa - Ejido	16. Badajoz	25-15	22	3	3	4	4	1	7	7	4	11	16	31			
Eibar - Almeria	17. Getafe	24-4	22	4	2	4	2	4	6	6	6	10	27	31			
Almeria - Kordoba	18. Compostela	24-4	22	3	4	3	2	5	5	5	9	8	23	27			
Zaragoza - Levante	▼ 19. Eibar	24-5	22	4	4	2	1	5	6	5	9	8	15	20			
Getafe - Murtzia	▼ 20. Ferrol	23-12	22	3	6	2	2	2	7	5	8	9	18	30			
Oviedo - Tenerife	▼ 21. Kordoba	21-5	22	4	4	4	0	5	5	4	9	9	15	20			
Compostela - Ferrol	▼ 22. Oviedo	21-10	22	1	4	5	4	2	6	5	6	11	19	29			

▲ Lehen Mailara  
▼ Bigarren B Mailara

**KALEAN GOARA-KALEAN BEHERA**

**YANGUAS**

Asier Legarda-ereño.- Fiteroko atzelariaren garrantzia ukatzerik ez dago, baina bere sasoi puntu onenetik urrun da oraindik Yanguas eta taldeak asko nabaritzen du hori. Amavisca eta batik bat Luquek arazo ugari sortu zituzten, eta Riverorekin eskuin hegal patala osatu zuen Riazorren.

**ALAVES**

Jon Rejado.- Atera behin jaurtitzeko duen talde batek arazo larriak dituela uzten du agerian. Alavesek hiltzorian zegoen talde bati gora egiteko aukera eman zion, eta, bide batez, gasteiztarrek behera begira jarri dira denboraldiko une erabakigarrian.

**JAUREGI**

Jon Balenziaga.- Neurketa biribila jokatu zuen Espanyolen aurka. Dena moztu zuen, eta baloia jokatzean ere asmatu zuen. Entrenatzailearen konfiantza du, orain arteko neurketa guztiak jokatu ditu, eta hori alde duela, denboraldi konpletua ari da osatzen. Hazten ari da.

**BURGOS**

Julen Etxeberria.- Atletico Madrilgo atezainak partida bikaina egin zuen Sevillaren aurka, balio handiko hamaika geldiketarik eginda. Sevillaren golean, hala ere, kale egin zuen, txorakerietan ibiltzeagatik.

**IZENA ETA IZANA**

**IÑAKI MUÑOZ (OSASUNA)**

**Erdilari balioanitzaren ordua**

Asier Legarda-ereño |

Iñaki Muñoz zorioneko da: Miguel Anjel Lotinak erakutsi ez zion konfiantza erakutsi dio Javier Aguirre entrenatzaileak, eta oraindik ere mexikarrarentzat ezinbesteko jokalaria dela esaterik ez bada ere, Yanguas, Palacios edo Pablo Garciak baino partida gehiago jokatu ditu dagoeneko denboraldi honetan. Eskuin hegaletik, erditik zein ezkerretik, baina zelai erdian beti, Iñaki Muñozen ordua iritsi dela dirudi.

Iragan denboraldian jokatu zuen estreinako aldiz Iñaki Muñozek Lehen Mailan. Osasunaren harrobiko maila guztietan aritu da, arazorik gabeko ibilbidea egin zuen lehen taldera bitartean, baina kosta egin zaió lehen taldean tokia egitea. 2000. urtean igo zen lehen taldera. Osasuna Lehen Mailara itzuli berria zen, eta Lotinak ez zuen Bigarren B Mailatik mailarik gorenera jauzi egiteko prest ikusi Muñoz, Josetxo eta Jusue ez bezalaxe. Orduan, bere kirol ibilbidean lehendabiziko aldiz, Osasuna uztera behartuta ikusi zuen bere burua Muñozek. Bigarren B Mailan zen Toledo, eta 32 partida jokatzeaz gain, bi gol ere egin zituen. Bigarren A Mailara igotzerik ez zuten lortu, ordea. 2001-2002 denboraldian Osasunak jarraitu ahal izango zuela bazekien, baina 23 urterekin, bere azken aukeren aurrean zegoela ere bai.

Lotinak aukera askorik ez zion eman iragan denboraldian ere. Baina Lehen Mailan estreinako partida entrenatzaile meñakarraren eskutik jokatu zuen.



VILLAR LOPEZ / EFE  
Iñaki Muñoz lan saio batean korrika, eta bere atzean Moha.

2001eko abenduaren 23a zen. Derbia Sadairen, eta Athletic garaile, 0-1, partida hotz batean. Artean ez zen bere ordua.

Hamaika hilabete eta erdi geroago, Lotinarik gabe, Aguirreren eskutik, gorritxoaren hasierako hamaikakoan izan zen lehendabiziko aldiz. Iragan abenduko bigarren igandean zen, hilaren 8a. Berrito

Athletic zuen aurrean, baina San Mamesen zen hitzordua oraingoan. 1-3 irabazi zuten nafarrek, eta gorritxoaren bigarren gola Muñozek sartu zuen. Bere lehen gola Lehen Mailan. Harrezkero, taldeki-deen zigorrak eta lesioak tarteko, Osasunaren partida gehienetan hartu du parte Muñozek, eta bere bigarren gola igandean iritsi zen Riazorren. «Une hauetan aurrez bizi izan ditudan garai txarrekin ere oroitzen naiz, baina unerik beltzenetan ere itxaropena ez nuen galdu eta orain jarraitasuna izatea besterik ez dut eskatzen», esan zion Muñozek atzo EGUNKARIARI. Uztailearen 2an 25 urte beteko ditu, eta futbolaren gazi-gozaok dastatu ditu dagoeneko.

Realak urtero antolatzen duen gazte mailako nazioarteko txapelketa irabazi zuenetik sei urte pasa dira, eta azken biak, gutxienez, ez dira onak izan. 1996-1997 denboraldia zen, eta inoiz irabazi ez zuen txapelketa irabazi zuen Osasunak, Muñozek gidatuta. Txapelketako jokalaririk onena izendatu zuten Muñoz, eta bere mailarik onena erakutsi zuen Osasunak, Real Madril, Reala, Moenchengladbacheko Borussia eta finalean Porto ere gaudituta. Cesar

Palaciosen garai onenak ziren lehen taldearekin, eta jende askok alderatzen zuen Muñoz Palaciosekin. Harrobiko Palacios berria, zioten berari buruz. Gaur egun, badu Palaciosen adina protagonismo Muñozek Osasunak. Azkenean bai, bere ordua iritsi da, eta kontratua luzatzeko lanean ari dira dagoeneko agintariak.